



USTIATEGIKO TITULARREN BETEBEHARRAK

(17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa)

Nekazaritza-ustiategietako titularrek honako betebeharrak hartu beharko dituzte beren gain:

a) Dagokien jarduera betetzeko araudi sektorialek exijitutako administrazio-baimena guztiak edukitzea.

b) Araudiak ezarritako higiene- eta osasun-baldintza guztiak betetzea, izurrik eta gaixotasunik sortu eta zabaldu ez dadin.

c) Langile gaituz hornitzea ustiategia, beharrezko prestakuntza ematea eta araudian lan-arriskuen prebentziorako aurreikusitako neurriak eskaintzea.

d) Esku hartzen duten administrazioei ustiategiari buruzko datuak bidaltzea (arauz agindutako datuak), horretarako ezarritako epean; batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiategien Erregistroari, Erroldari eta nahitaez bete beharreko beste eragiketa estatistiko batzuei buruzko datuak.

e) Arauaren arabera edo nekazaritza-arloko euskal administrazioekin hitzartutako kontratu bidezko harremanaren arabera egokiak diren kudeaketa-praktika eta -metodoei jarraiki jardutea.

f) Nekazaritza-lurra gutxiegi erabilia ez edukitzea, non eta ez dagoen, eskumena daukan agintariak hala erabakita, lurra landu gabe edukitzeko arrazoiren bat, laborantza aldetik, edo lurra horrela edukitzea justifikatzen duen aparteko arrazoiren bat.

g) Inbertsio publikoari esker eskura dauden baliabide eta/edo azpiegiturak behar bezala aprobetxatzea lur horietan.

h) Suteak pizteko eta hedatzeko arriskua eragin dezaketen laborantza- eta basogintza-praktikak eragozteak.

i) Bere ustiategiari lotutako eskubideei dagokienez araudiak ezarritako xedapenak betetzea, kudeaketa-, lagapen- eta transmisio-gaietan.